

HERNANI • URNIETA • USURBIL • ASTIGARRAGA

# SAGARRONDOTIK '04

OTSAILAK 26, 27, 28 ETA 29



## LARRE-GAIN

Sagardotegia

943 55 58 46

Larre-Gain Baserria  
EREÑOTZU • HERNANI



# Kolore askotako egitaraua

Lau egunetan Hernani, Urnieta, Usurbil eta Astigarragak eskaintza benetan tentagarriak bilduko dituzte. Egin kosk sagarrari!

## OTSAILAK 26 OSTEGUNA

### URNIETA:

#### INAUGURAZIOA

#### SAROBEN

**20:00etan** Harrera ekitaldia:

Sagardogileak, Kofradiak eta Elkarteak

Real Sociedad futbol taldeari 'Sagardoaren Mezulariak' ikurra ematea, European barna Gipuzkoaren izena zabaltzen ari delako iaz eginiko lan onaren ondorioz.

#### Ondoren

'ZAHARREGIA, TXIKIEGIA AGIAN' olerki eta musika emanaldia (Kirmen Uribe, Mikel Urdangarin, Bingen Mendizabal, Rafá Rueda)  
Sarrerak: Lekaio K.Etxea, Zaldundegi, 12 euro



## OTSAILAK 27 OSTIRALA

### HERNANI

#### MUSIKA JAIALDIA KARPA ERRALDOIAN

**22:30etan**

FTTO & FTIPALDIS (Euskal Herria)

REINCIDENTES (Andaluzia)

SUTA GAR (Euskal Herria)

ORISHA'S (Kubatik zuzenean, Estatuan kontzertu bakarra)

12.000 pertsonentzako kabida duen karpa, txosna guneak, DJ-ak, oilaskoak, bokatak, sagardo kupelak...

## OTSAILAK 28 LARUNBATA

### HERNANI

#### MUSIKA JAIALDIA KARPA ERRALDOIAN

**22:00etan**

ARI Arianna Puello (Santo Domingo)

KURAIJA (Euskal Herria)

OJOS DE BRUJO (Katalunia)

FERMIN MUGURUZA & Kontrabanda (Euskal Herria)

12.000 pertsonentzako kabida duen karpa, txosna guneak, DJ-ak, oilaskoak, bokatak, sagardo kupelak...


## OTSAILAK 28 LARUNBATA

### USURBIL

#### HERRI KIROLEN LEHIA PLAZAN

**17:00etan** Astigarraga, Hernani, Urnieta eta Usurbilen arteko lehia ikusgarria. Txingak, sagar iltzatzea, zaku lasterketa, ingudea, aizkora, trontza, harri jasotzea eta sokatira.

Froga eta froga artean **Aimar Irigoien harri-jasotzaile gazteak munduko errekor saiakera** egingo du. 200 kiloko harri errektangulatu bat jasotzeko behar du. Aurreko errekorra Inazio Perurenak dauka, 180 kiloko harriarekin.




**OTSAILAK 29 IGANDEA  
ASTIGARRAGA  
EUSKAL HERRIKO II.  
SAGARDO MOSTRA**

**Goizeko 10 etatik aurrera** herrian barna:  
Euskal Herri osoko 60 sagardogileren mostra  
Euskal herriko produktuen azoka: ogia, ezti, larrua, egurra...  
Sagardoaren museo ibiltaria  
Trikitalariak

**11.00etan** KATA KOMENTATUA  
Xabier Kamio eta Domingo Arina enologoekin.



**13.30etan** Patxi Perez eta Iparraldeko dantzarien ikuskizuna 'Dantza Piko', Astigarragako eta Hernaniko (Ttara) dantza taldeek lagundua.

**17.00etan** Bertsolariak: Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Aitor Mendiluze, Maialen Lujanbio  
Taloak, pintxoak... egun osoan



ATXUR  
TABERNA

Tel. 943 55 26 46 HERNANI



# Txotx deia ozenen entzuten den lurraldearen jaia

Hernanin, Urnietan, Usurbilen eta Astigarragan izango da Sagarrondotik

**EUSKAL HERRIKO** sagardotegien %60 baino gehiago gipuzkoarrak dira. Eta Gipuzkoako sagardotegien erdiak lau herriotan aurkitzen dira: Hernani, Astigarraga, Urnieta eta Usurbilen. Horregatik edo, sagardoaren inguruko festa antolatzen hasita Sagardoaren lurraldea deitzen den horretan egitea erabaki zuen iaz Sagardoaren Kultura Sustatzeko Elkarteak (SKSE). Bai lehengo urtean eta bai aurtengoan aipatutako lau herriek parte hartu dute jaialdian, hau edo hura antolatzen, egitarauak hala agintzen duenean hango edo hemengo ekin-tzan parte hartzen eta, noski, festaz eta giroaz gozatzen. Eta parte hartzea maila eta kolore guztietakoa izan da, Udaketik herritarrenganaino. Horren adibide garbia da otsailaren 28an Usurbilen jokatuiko den lau herrien arteko herri-kirol desafioa adibidez.

Aurtengo Sagarrondotik jaialdia iazkotik desberdina horretan izango da hain zuzen, lau herriek jaialdia babestu eta bertan parte hartuko dute lehengo urtean bezala, baina, horregatik, egitaraua lau herrietan banatuta banatuko da. Sagardoak eta sagardoaren kulturak lagun kuttunak baitaizka Usurbilen, Urnietan, Astigarragan eta Hernanin.

## Sagardoa eta Usurbil; betiko lagunak

Datorren maiatzean Usurbilgo Sagardo Egunak 23.a beteko du. Berriz ere beteko dira herriko bazterrak jendez eta sagardoaz, azken urteetan jaia izugarria bihurtu baita. Eta festa honen atzetan egon da urtez urte eta 23 urtetan Sagardo Eguneko Lagunak taldea. Sagardoaren kulturak bizi zuen egoera kaskarrekin kezkatuta zegoen herritar talde bat bildu zen 1982 urtean, guztiak ere Andatza Kultur Kirol Elkartearen bueltan zebiltzanak, eta sagardo mundua sustatzeko zerbait egin beharra zegoela erabaki zuten. Halaxe sortu zen Sagardo Eguneko Lagunak taldea.

Hasiara-hasieratik taldeko kide den Jakoba Errekondoren hitzetan «gaur egungo egoerak eta orain dela 23 urtekoak ez daukate zerikusirik. Sagardo munduak izugarritzko beharrak zituela ikusi genuen eta horretan hasi ginen lanean. Denborak arrazoia eman digu». Lehenengo urte hartan astebeteko sagardo jardunaldiak antolatu zituzten eta erakusketekin eta hitzaldiekin osatu zituzten besteren artean. Amaiera bikaina eman zien jardunaldiei lehenengo Sagardo Egunak. Estreinako hartan hamaika sagardogilek hartu zuten parte. Gauzak asko aldatu dira, ordea, azken hamar urtetan Usurbilgo Sagardo Egunera 45 bat sagardogile gerturatzen dira, plazan ka-



bitzen diren guztiak, lekua egonez gero, gehiago ere etortzeko gogoz baitaude. Sagardotegiak ere duela 23 urte baino ugariagoak dira eta osasuntsu daude, baina, hala ere, «asko dago egiteko», Errekondok nabarmendu duenez. «Sagardo mundua eta sagardotegiak ez dira gauza berdina. Sagardotegiak ondo daude, baina sagardo munduan behar handiak daude oraindik orain. Baserritarrak, ekoizleak, kultura... horiek denak sagardo munduaren parte dira eta ez daude hain ondo». Hartara, Sagardo Eguneko Lagunak taldea horiei guztiei begira ari da lanean. Sagarrondotik jaialdian ere parte hartuko du Usurbilgo taldeak. «Sagar-

doaren munduan gero eta gauza gehiago egin, hobeto».

## Urnietan: Sagardoa sentitzearen artea

Askotan, gehiegietan igoal, sagardoaren lurraldea aipatzen hasita Urnieta ahaztu egiten da Hortxe dago, ordea, tradizioaren bihotz-bihotzean. Urnieta sagardogileak ez dira elkarte batean bildu oraindik, baina banaka-banaka hartuta adibide eder askoak daude baserrietako kupel ondoetan. Urnietak ere marrazten duela sagardoaren lurraldea. Horren adibide dugu Eula Sagardotegia, aitona aitari eta aitak seme-ari utzitakoa, hala kontatu di-

Usurbilgo Sagardo Egunak 23 urte beteko ditu orain.

gu Aitor Iguaranek, bertako semeak. Bere aitona zenak bazituen kupelak eta ez bakarrik etxerako, kanpoan ere saltzen baitzuen sagardoa. Aitak jarraitu zion tradizioari eta Aitor semeak ondoren. Eula sagardotegia osasunez majo dago, azken urteetan ez omen du gora-behera handirik somatu bisitarien kopuruan, «urtero berdintsu etortzen dira». Tartea urteroko bisitari leialak, urteroko aurpegiak alegia; eta baita urtero-urtero aurpegi berriak ere. Urnieta sagardogileek ere babestuko dute Sagarrondotik jaialdia, halakoak mesedegarri direla uste dutelako. Baina, hori bai, Aitor Iguaranek nabarmentzen duenez, «ez dira sagar-

doaren aitzakian egin behar halako jaiak, sagardoa sentituz eta errespetatuz egin behar dira. Sagardoarekiko sentimendu hori izan behar dute halako festeko.

### Sagardoaren irrintzia Hernanitik mundura

Gipuzkoako Sagardo Naturalaren Kofradia Hemanin: Tolarea.

Duela bederatzi urte sortu zen Tolarea Hemanin, Berria Merkatarien Elkartearen bultzadaz. Tolareako lehen-dakari Kristina Goñik gogoratzen duenez, «kasualidadez jakin nuen merkatariek nola kofradia bat sortu zuten, sagardotegi batean jakin nuen hain zuzen. Sartzerik ba al dago? Galdetu nien. Eta ordutik hemen gabilta saltsan».

Gaur egun Gipuzkoako Sagardo Naturalaren Kofradiak ehun kofrade inguru dauzka, mota guztietako sagardozeleak eta sagardo munduaren maitaleak tartean. Urtean barrena bi hitzordu garrantzitsu izaten dituzte: martxoan izaten den kofradeen ekitaldi nagusia eta iraila inguruan antolatzen duten sagarraren eta sagardoaren jaiak. Hauetz gain, erakusketak, hitzal-diak eta halakoak ere antolatzen dituzte. Sagarrondotik jaialdiaren babesle eta laguntzaile da Tolarea, oso begi onez ikusten baititu halako jaialdiak: «Sagardoaren munduan egiten den guztia pozgarria da guretzat eta halakoak laguntzen saiatzen gara beti. Sagarrondotik jaialdiak ere izango du gure laguntza, lehengo urtean bezalaxe».

Bederatzi urte hauetako balantzea ona da. Eta Kofradiak lehendakariari eman dion onena lagunak dira dudarik gabe, «beste kofradietako lagunak eta sagardo munduan ezagututako la-

### USURBIL

Sagardo Egunaren Lagunak elkarteak duela 23 urte sortu zen Usurbilen sagardoaren mundua indartzeko asimetan

### URNIETA

Sagardo tradizio handiko herria da Urnieta; sagardotegi asko aitona aitari eta aitak semeari pasatakoak dira

### HERNANI

Gipuzkoako Sagardo Naturalaren Kofradiak ehun kide inguru ditu, guztiak ere sagardo munduaren maitale

### ASTIGARRAGA

Jaiak berria den Sagardun Partzuergo kultur taldeek, sagardogileek eta Udalak osatzen dute

Gipuzkoako sagardotegiaren erdiak Urnietan, Usurbilen, Hemanin eta Astigarragan daude.

gunak dira bederatzi urte hauetan gertatu zaigun gauzarik onena. Gainera, pozik gaude sagardoa hamaika bazterretan eman dugulako ezagutzera, Euskal Herrikan kanpo Espainiako leku askotara eramanez sagardoa. Eta sagardoaren berri ematearekin batera Euskal Herriaren berri eta, nola ez, Hemanin berri ere eman dugu». Aurrera begira lan horretan jarraitzeko grinez dago Kristina Gofii eta berak zuzentzen duen Kofradia.

### Sagardun Partzuergo Astigarragan

2003ko ekainean sortu zen Sagardun, Astigarragako sagardogileekin eta sagardogintzarekin zerikusia duten jarduera soziokulturalak antolatzeko eta bideratzeko helburuarekin, hain zuzen ere. Partzuergo Astigarragako Udalak, herriko kultur taldeek eta inguruko sagardogileek osatzen dute eta hamaika erronka daukate buruan, guztiak ere sagardoaren eta sagardotegiaren ingurukoak. Sagardun Partzuergoaren helburuak norabide askotakoak dira: komunikabideetara sagardoaren inguruan antolatzen diren kultur ekimen guztien berri zehatza helarazi nahi dute batetik; agente turistikoekin ere lan egin nahi dute, bazkari eta afari erreserbak egin eta bisita gidatuak antolatuz adibidez; sagardozeleei begira ere bada-ga Sagardun, eta hauentzat katak, dastaketak, ikastaroak, argitarapenak, martxan jartzea da bere helburuetako bat.

Eta dauden sagardozeleak zaintzeaz gain, berriak ere erakarri behar direnez, ikasleentzako bekak, ikerkuntza lanak eta bisita gidatuak antolatzeko asmoa ere badu Astigarragako elkarte gazteak.

## Joxe Angel Gaztañaga



Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko lehendakaria

## «Sagardotegiek sasoi ona bizi dute, baina beti dago zer hobetua»

**IÑAKI IRIGOIENEK** pasatu zion lehendakariaren kargua duela ez asko eta lehenengo trantze horretan dabil oraintxe Joxe Angel Gaztañaga, martxan hasi beritan. Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko lehendakaria ez ezik, Gaztañaga Sagardotegiko nagusia ere bada Joxe Angel. Sagardogileek ondo dakite arazoak eta trabak denen artean banatuz gero, bakoitzarentzako parte txikiagoa izaten dela eta errazago gaintzen direla gainera. Indarrak batuz gero, ate asko aiseago zabal-tzen dira-eta.

### Nolatan hautatu zaituzte lehendakari?

Elkartean lan asko daude egiteko eta, normala denez, aldaketak ere izaten dira tartean. Ni zuzendaritza batzordearen inguruan nengibilen diruzain lanetan eta nire izena bota zuten lehendakari berria izateko. Azkenean, bozketa egin zen zuzendaritza batzordean lehendakari izateko prest geunden artean eta niri tokatu zitzaidan. Ilusioa badaukat, alferrik gaude beste-la, eta ahal dudan ondoen egingo dut nire lana.

### Elkartean lan asko daudela esan duzu. Zeintzuk dira bere eginbeharrak?

Lan nagusienak sagardoari bultzada ematea eta sagardogileei sortzen zaizkigun arazoak konpontzen saiatzea dira. Sagardogileek ez dugu momentu oso ona bizi, sanitaterako legeak ez baitira batere samurrak eta exijentzia handiak dauzkagu. Elkartearen lanetako bat horixe da beraz; exijentzia horiek guztiak denon artean betetzeko moduak bilatzea. Ikerketak, sagardoaren prezioa eta halakoak ere aztertzen

ditugu. Eta dirulaguntzak ere elkartearen izenean eskatzen ditugu sagardogile guztiok. Elkartuta joanda abantailak lortzeko aukera askozaz gehiago dauzkagu.

### Baina sagardotegiaren martxa ona da, ezta?

Sagardotegiaren gauzak nahiko ondo doaz, baina egia da gauzak estutzen ari direla eta, gero eta gehiago, sagardotegiak enpresa bezala bideratzen ari direla. Lehenago familiako negozioak izan dira sagardotegiak eta orain enpresa bezala begiratu behar diegu. Eta horrek egin behar asko dakartza, pixkanaka-pixkanaka egin behar ditugunak. Orokorrean esan daiteke sagardotegiak garai ona bizi dutela, baina horrek ez du esan nahi horrela gelditu behar dugunik, hobetu beharra dago, txukun-txukun hobetzen eta irudi ona ematen. Nahi izanez gero, beti dago zer hobetua.

### Zenbat bazkide zaudete?

Elkartean 65 bazkide gaude, gehienak Astigarraga eta Hemaniko sagardotegiak, nahiz eta Gipuzkoako beste herrietakoak ere badauden. Gainera, bulegoan langile bat daukagu administrazio kontuetarako eta gure asmoa da egoitza propioa jartzea, lokal bat erostea alegia. Orain alokairuan daukagu.

### Zer moduzko txotx denboraldia espero da.

Nik uste oso ona izango dela. Sagardoa ere ederra dago, edanerraza oso, usain ederrekoa. Kolorez horixegoa da, baina oso ona da aurtengo sagardoa. Orain arteko mugimendua ikusita, aurtengoan jende dezente izango dela uste dut.



# Sagardoaren mezulariak: sagastiko langa Europaraino

Real Sociedad taldeak jasoko du aurten ikurra, European barna Gipuzkoaren berri emateagatik

## IGOR GABILONDO

Sagardoa ez omen zaio bereziki gustatzen, baina sagardotegietako giroa maitea du.

### Sagardotegietara joatea debekatuta al duzue?


Ez, lasai joan gaitzke. Ez gaitzke egunero edo astean bitan joan, baina noizean behin joateagatik ez da ezer gertatzen. Orain dela egun gutxi joan nintzen ni kuadrilakoekin. Baina ez dut uste txotx garaian sagardotegi asko egingo ditudanik.

### Sagardoaren Mezulariak. European barna Gipuzkoa eta Euskal Herria ezagutzera emateagatik. Ardura gehitxo da agian.

Konturatzen gara gure inguruan zenbat jende mugitzen den eta kirolek aparte halako lanak ere egiten ditugula. Hasieran, agian, ez zara konturatzen European barrera ibiltzearen garrantziaz; zu partida bat jolastera zoaz eta hementxe jolalariek zenukeen bezala jokatzeko duzu han. Baina kontziente gara gurekin jende asko mugitzen dela eta Realaren izena leku guztietatik eramaten dugula.

### Sagardotegiren bat edo beste bai, baina, adibidez, Sagarrondotik jaialdiak prestatu dituen kontzertuetara joaterik ba al duzue?

Hori ez, astebukaera harrapatzen du eta guk partida daukagu. Baina sagardotegien kasuan urtean pare bat konpromiso izan ohi dira eta horiek betetzen ditut, baina beti astean zehar.



## OIANUME

Urnietako Oianume sagardotegiak afaria eskainiko du otsailaren 26an. Beran bilduko dira Realeko jokalariei eta zuzendariak kideak, jaialdian parte hartuko duten Udaletako ordezkariak, sagardogileak... Eskertzekoa da Urnietako sagardotegi honen gonbitea.

Itxiturak gordetzen eta babesten du sagastia, altxor preziatua bailitzan. Eta bada; sagastiak Euskal Herriko kulturaren parte bat gordetzen duelako: sagarra, sagardoa, baserria, kupelak, bertsolaritza, euskal kantak eta dantzak, jaiak, lagunartea, tradizioa. Mimoz gordetzen ditu atakak horiek guztiak, Juan Gorritik bere lanak egiten dituen maitasun berdinarekin.

Sagardoaren Mezulariak ikurra Arribeko Juan Gorriti eskulturgileak egindakoa da eta langa edo ataka bat irudikatzen du. Gorritik maitasun handiz egin du lan hau, Euskal Herriko maitale amorratua delako eta sagardoaren kultura ere oso kuttuna duelako. Kontatzen duenez, umetatik ezagutu izan ditu sagastiak Gorritik bere Araitz bailla-

ran eta sagardoa esanda horixe etorri zaio buru-bihotzera: langa. Egurrezko oinarria eta brontzezko gorputza du eskulturak eta egurrak ere badu bere historia eta bere istorioa. 500 urte baino gehiago ditu eta garai batean baserrietan teila modura erabiltzen zuten egurren zati bat da. Gure herriko historia- ren usain gozoa dauka beraz. Sagarrondotik eta sagastitik abiatuta, langa edo ataka hartu du oinarri Juan Gorritik.

Eta Real Sociedad taldeak horixe egin du hain zuzen, sagastiko langa ireki eta Europaraino eramane du ataka eta, noski, itxiturak barrualdean gordetzen duen guztia: sagardoaren kultura, sagarra, sagardoa, sagardotegia, bertsolaritza, euskal kantak eta dantzak, jaiak, alaitasuna, tradizioa, lurrarekiko maitasuna...

## IGOR JAUREGI

Gustukoa du sagardotegietako saltsa, baina, oso argi daukanek, «ahal denean egiten da eta ezin denean ezin da».

### Aurtengo sagardorik probatu al duzue?

Ez, aurten oraindik ez dut sagardorik probatu. Otsailaren 26an Sagarrondotik jaialdiak egin digun gonbiteari erantzun eta Urnietan probatzea espero dut.

### Taldekoek sagardotegirik egin al duzue?

Iaz sagardo denboraldia hasi aurretik talde osoa joan ginen sagardotegira. Oso gustura ibili ginen. Sagardoa gehiegi gustatzen ez bazait ere, sagardotegietako giroa zoragarria da eta talde bezala joateko plan bikaina da. Gainera, gure taldean Euskal Herrikoak ez diren asko daude eta beraienez gauza berria da sagardotegia. Probatu duten guztiei ikaragarri gustatu zaie giroa.

### Zer ospatuko zenuke sagardotegi batean?

Sagardotegi batean edozer gauza ospatu daitezke. Adibidez Athleticen kontrako derbia irabaziz gero, aukera ona litzateke sagardotegira joateko.

Horregatik jasoko du talde donostiar- rrek aurtengoan Sagardoaren Mezulariak ikurra.

Eta, bide batez, Euskaldunon Egunkariarekin daukan zorra kitatuko du Sagarrondotik jaialdiak. Iaz itxi berria zuten egunkariarentzat izan zen omenaldi xumea, baina Gorritik egindako ikurra aurtengoa denez, ez zuten halakorik jaso. Aurten jasoko dute, beraz, merezitako eskultura.

Ekitaldi honek hasiera emango dio asteburu guztian luzatuko den egitarau tentagarriari. Ikurra eman eta berehala 'Zaharregia, txikiagia agian' musika eta olerki emanaldia izango da Sarobe kultur gunean. Eta ondoren Urnietako Oianume sagardotegiak afaria eskainiko du.

- **Sagardotegia: (urtariletik urrira zabalik)**
- Etxean egindako sagardoa (dolare), Txotx.
- **Jatetxea (urte osoan zabalik)**
- 3 jantoki pribatu enpresentzako eta interneten sartzeko aukera.
- 3 jantoki kolektibo. Menua eta karta. Ezkonbazkariak, otoeduak, jaunartze-bazkariak, agur-afariak,...
- Gasolindegia aurrean gaude. Parkin handia.



- **Sidreria: (abiarta de enero a octubre)**
- Elaboración propia de sidra (tolare), Txotx.
- **Restaurante (abierto todo el año)**
- 3 comedores privados para empresas y conexión a internet.
- 3 comedores colectivos. Menú y carta. Bodas, Banquetes, comuniones, despedidas,...
- Estamos frente a la gasolinera. Amplio parking.

# OIANUME SAGARDOTEGIA

Tel-Fax: (0934) 943 33 66 83

Tel: (0934) 943 33 25 05

URNIETA

# Astigarraga, Euskal Herriko sagardoaren topagune

Bigarrenez Sagardo Mostra erraldoia izango da otsailaren 29an

**EUSKAL HERRIKO** sagardogilek eta sagardozaileek huts egin ezineko hitzordua daukate Astigarragan datorren otsailaren 29an, igandez. Bigarrenez Euskal Herriko Sagardo Mostra izango da bertan eta gure herriko ha maika txokotako sagardoa izango da dastagai, Euskal Herri osotik bertaratu baino 60 sagardogile baino gehiago. Plana ederra da; basoa hartu eta postuz postu dastatu herrialde guztietako sagardoa, herrialde bakoitzeko usaina, kolorea eta zaporea.

Sagardoa gipuzkoarra dela esaten da askotan, litro gehien bertan ekoizten delako eta sagardotegi gehienak ere bertan daudelako. Baina sagardoa ez da Gipuzkoako altxor eskusiboa, beste herrialdeetan ere sagardoa eguneroko edaria izandakoa da eta egun badaude horren arrastoak. Horren adibidea izango da Astigarragako herria datorren otsailaren 29an, Euskal Herriko II Sagardo Mostraren gotorleku eta Euskal Herri osoko sagardogileen topagune bihurtuko baita.

## Botilako sagardoa

Txotxaren moda 70ko hamarkadan hasi zen eta jarraitzen du oraindik, sa-soi onean gainera, baina txotx denboraldia amaituta egunerokoa apenas duen tokirik sagardoak eta horixe da hain juxtu sagardogileei buruko min gehien sortzen diena. Hartara, azken urteotan botilako sagardoa bultzatzen saiakera polita egin dute, egunero etxeko mahaietan, tabernako poteoan eta jatetxetako menuan sagardoi toki egite aldera. Botilako sagardoa ekarriko dute Astigarragako hitzordura Euskal Herriko 60 sagardogile inguruk, herrialde guztiak daukatelako dastatzeko zer emana.

Arabian, esaterako, urtarilaren bukaeran hasi eta apirilaren bukaera arte izaten da txotx denboraldia eta 12.000 sagardo litro inguru prestatzen dituzte urteroko hitzordurako. Araba iparraldean topa daitezke nagusiki sagardogintzaren arrastoak eta azken urteotan



gero eta gehiago dira etxerako sagardoa egitera animatu direnak.

Arabako sagardotegiek, ordea, oraindik orain ezin dute sagardotik bakarrik bizi eta ostalaritza lanetan ere jarduten dute. Ohitura kontua omen da, Araban txotxaren kultura ez baitago oso sustraituta eta edalontzia hartu eta kupelera gerturatzeko joera handirik ez dauka arabar askok. Sagardotegiko menua ere mugatua iruditzen zaio askori.

## Elkartea sortu nahian

Nafarroan oraindik asko dira sagardoa etxerako egiten duten baserritarrak, Baztan bailaran gehienak. Hala ere, nafar askok sagardotegi egamia izanez gero, Gipuzkoa aldera joateko joera daukate.

Sagardoa saltzen duten bost sagardogile daude egun Nafarroan; Lekarotzeko Larralde, Berueten bi, eta Lekunberin eta Aldatzen bana. Gainera, Nafarroako Sagardogileen Elkarte sortzeko ahaleginetan dabilta azkenaldian.

Ipar Euskal Herrian ere berdintsu dabilta, sagardogileak batuko dituen elkarte bat sortu nahian; sagardoiari

Herrialde guztietako sagardoa izango da dastagai Astigarrako mostran.

## ARABA

Preparan cerca de 12.000 litros de sidra para la cita anual del txotx

## NAFARROA

Actualmente están intentando crear la Asociación de Sidreros de Navarra

## IPARRALDE

La Asociación Sagartzea y la Cooperativa Eztigar están haciendo un gran trabajo

bultzada emateko eta jendea sagardotegietara erakartzeko. Sagartzea Elkarteak eta Eztigar Kooperatibak aspaldian hasi zuten sagardoa bultzatzeko ahalegina, milaka sagarondo landatuz eta Ipar Euskal Herriko sagar mota ezagutzeko ikerketak eginez, besteren artean. Izan ere, sagardoa etxerako egiten dutenak asko badira ere, gaur egun lau sagardotegietan bakarrik saltzen dute sagardoa Ipar Euskal Herrian: Urruñako Txopinondon, Lasako Aldakurrian, Donaixtikoko Beltxun eta Biriaturako Belokin.

## Bizkaia bigarren tokian

Eta Gipuzkoaren ondoren sagardogile kopuru handiena Bizkaian dago, hamabi sagardogile guztira. Bizkaiko Sagardoa Elkarteak biltzen ditu guztiak eta aurten 25.000 litro egin dituzte. Bizkaiko Foru Aldundia ere ari da lanean sagardoaren kultura sustatzeko eta bide honetan ugariak izaten dira sagardo egunak. Sagardotarako egoikiak diren sagarrek inkerketan ere ari dira Bizkaian. Sagardo litro dezente egiten dira beraz Bizkaian, baina txakolinaren lurraldea izaki, askok sagardoa eta txakolina ekoizten dute.

## SAGARDOGILE PARTE-HARTZAILEAK

LAPURDI	
<b>Txopinondo Sagardotegia</b>	Uruña
<b>Beloki Sagardotegia</b>	Biriatu
NAFARROA BEHEREA	
<b>Aldakuria Sagardotegia</b>	Laso
<b>Beltxun Sagardotegia</b>	Donaixti
NAFARROA	
<b>Martintxoenea Sagardotegia</b>	Aldatz
<b>Larralde Sagardotegia</b>	Lekarotz
ARABA	
<b>Ihurieta sagardotegia</b>	Aramaio
GIPUZKOA	
<b>Urbiate Sagardotegia</b>	Araun
<b>Zalbide Sagardotegia</b>	Albatzisketa
<b>Zabala Sagardotegia</b>	Aduna
<b>Aburuza Sagardotegia</b>	Aduna
<b>Goztañaga Sagardotegia</b>	Andoain
<b>Mizpirabi Sagardotegia</b>	Andoain
<b>Gurutza Sagardotegia</b>	Astigarraga
<b>Zapiain Sagardotegia</b>	Astigarraga
<b>Gartzitegi Sagardotegia</b>	Astigarraga
<b>Petrítegi Sagardotegia</b>	Astigarraga
<b>Alorenea Sagardotegia</b>	Astigarraga
<b>Buenaventura Sagardotegia</b>	Astigarraga
<b>Rezola Sagardotegia</b>	Astigarraga
<b>Oiarbide Sagardotegia</b>	Astigarraga
<b>Mina Sagardotegia</b>	Astigarraga
<b>Añota Sagardotegia</b>	Azpeitia
<b>Lizeaga Sagardotegia</b>	Donostia
<b>Urkiola Sagardotegia</b>	Donostia
<b>Barkaiztegi sagardotegia</b>	Donostia
<b>Alzueta Sagardotegia</b>	Hemani
<b>Otsua-enea Sagardotegia</b>	Hemani
<b>Zelaia Sagardotegia</b>	Hemani
<b>Elorabi Sagardotegia</b>	Hemani
<b>Akarregi Sagardotegia</b>	Hemani
<b>Larre-Gain Sagardotegia</b>	Hemani
<b>Alberro Sagardotegia</b>	Hemani
<b>Itsasburu Sagardotegia</b>	Hemani
<b>Goiko-Lastola Sagardotegia</b>	Hemani
<b>Eizmendi Sagardotegia</b>	Hemani
<b>Iparagire Sagardotegia</b>	Hemani
<b>Rufino Sagardotegia</b>	Hemani
<b>Sagarzazu Sagardotegia</b>	Hondarribi
<b>Begiristain Sagardotegia</b>	Ikaztegieta
<b>Aulia Sagardotegia</b>	Legorreta
<b>Otegi Sagardotegia</b>	Lasarte-Oria
<b>Izastegi Sagardotegia</b>	Tolosa
<b>Eluxeta Sagardotegia</b>	Umietta
<b>Oianume Sagardotegia</b>	Umietta
<b>Eula Sagardotegia</b>	Umietta
<b>Setien Sagardotegia</b>	Usurbil
<b>Urdaira Sagardotegia</b>	Usurbil
<b>Saizar Sagardotegia</b>	Usurbil
<b>Aratzain Sagardotegia</b>	Usurbil
<b>Aginaga Sagardotegia</b>	Usurbil
<b>Otazu Sagardotegia</b>	Leaburu
<b>Ordo Zelai</b>	Oiarzun

**EGI-LYZE**  
SAGARDOTEGIA

Zamalbide Auzoa  
Tel. (943) 52 39 05  
ERRENTERIA

sidra natural - sagardo jatorrezkoa

**Sagardotegia**

Telf. 943 45 71 88  
ASTIGARRAGA - Gipuzkoa

**PETRITTEGI**

# Lau herri elkarren ondoan eta elkarren kontra

Herri-kirolen lehia jokatu da otsailaren 28an Usurbilgo Dema-plazan

**HERRI-KIROLAK** tradizioa eta jatorria bitxia da. Garai batean (eta orain berdintsu) baseritarrek aste guztia jo ta su lanean ematen zuten; egurra moztu, sagarrak bildu, zakuetan sartu, idiekin eta goldearekin lurrak lantzeko prestatu, behiak jetzi, esnea etxeetan banatu... baserrian beti zereginak sobera. Eta jai eguna iritsi eta lan berdinak egiteko zaletasuna zuten; hori bai, ondoko baserrikoarekin edo auskalo nongoarekin desafioan jarduteko. Desafioa eta apusturako grina odolean darama euskaldunak.

Herrien arteko ika-mikak eta liskarrak ere ezagunak dira Euskal Herriko hainbat bazterretan. Txoko batzuetan bizirik diraute haserre txiki horiek.

Datorren otsailaren 28an bietatik izango du Usurbilen antolatua den herri-kirolen jaialdia; desafiotik izango du eta herrien arteko lehia ere izango da. Urrietarak urdinez jantzita, horiz Astigarragakoak, hemaniarrak berdez eta usurbildarrak kamiseta gorriekin, desafio polita espero da. Arratsalde pasa bikaina prestatu da Sagarrondotik jaialdiaren baimen Usurbilgo Dema-plazan. Herri-kirolak nahi adina izango dira eta behin frogatuak bukatuta, ez dira faltatuko lau herrietako sagardoa, txorizoa eta taloak besteren artean.

Talde bakoitzean hamabost lagun izango dira eta hainbat lan bete beharko dituzte denen artean; bakarka batzuetan, binaka besteetan, hirunaka frogaren batean eta zortzikotea osatuta sokatira saioan.

**Sokatira**

Sokatararekin hasiko da lehia, lehen tiraldi batekin. Guztira zortzi lagunek jardungo dute lan honetan eta gehienez denen artean 650 kilo osatuko dituzte. Ondoren, harri jasotzearen eta trontzaren artean jokatu da bigarren tiraldia. Talde denak denen aurka arituko dira. Eta sokatirako finala bukaera-bukaeran jokatu da, aurreko tiraldietan emaitza onenak lortu dituzten bi taldeen artean.

**Sagar iltzatzea**

Parte-hartzaile batek egingo du lana eta 25 sagar iltzatu beharko ditu kizkiarekin ahalik eta azkarren. Sagar eta sagar artean metro bateko distantzia egongo da.

**Txingak**

Eta sagar iltzatea amaituta, txingak izango dira. Talde bakoitzeko bi lagun arituko dira frogatu honetan; hiru minutuko bi saiotan nork iltze gehiago osatu izango da gakoa, esku banatan 50 kiloko txingak hartuta.

**Zaku lasterka**

Talde bakoitzeko hiru lagun arituko dira nor edo nor, sagarrez betetako zakuak bizkarrean hartuta lasterketan. Zaku bakoitzak 50 kilo sagar izango ditu eta frogatu erreleboka osatuko dute. Talde bakoitzak plazan bama bederatziz bueltako saioa osatu beharko du.

**Ingudea**

Lagun batek egin beharreko frogatu da hau. Hemezortzi kiloko ingudea minutu bakarrean nor gehiagotan jo izango da gakoa.

**Aizkora**

Bi kanaerdiko moztea nork laisterren egin harek irabaziko du frogatu. Lagun bakarrak osatu beharko du lana.

**Harri jasotzea**

Lagun batek 70 kiloko harri bolari eutsi beharko dio bost minutuko epean.

**Trontza**

Bi lagun arituko dira lan honetan eta egurrean sei mozketan nork lehenago egin da frogaren funtsa.

**Puntuazioa**

Proba bakoitzean lehen tokia lortzen duen taldeak lau puntu lortuko ditu, hiru puntu bigarrenak, hirugarrenak bi puntu eta laugarrenak bakarra. Frogatu amaitu ezinik gelditzen den taldearentzat ez da punturik izango.



**Aimar Irigoien harri-jasotzailearen munduko errekor saiakera**

Usurbilgo herriarteko lehiak izango du beste erakargarritasunik, frogatu artean Aimar Irigoien 17 urteko Errezilgo harri-jasotzailea marka egiten saiatuko da. Esku bakarrarekin eutsiko

dio 200 kiloko harri errektangularrari eta, lortzen badu, munduko errekor berria jarriko du. Aurreko errekorra Inaxio Perurenak dauka, 180 kiloko harriarekin.

**TALDEAK**

**Umieta**

1. Xabier Usaralde	30 Urte	90kg
2. Joxe Luis Toledotxiki	28 Urte	74kg
3. Luis Mari Telleria	41 Urte	73kg
4. Juanjo Agudo	30 Urte	90kg
5. Joseba Labaka	26 Urte	85kg
6. Leire Albizu	26 Urte	49kg
7. Mikel Etxeberria	19 Urte	
8. Gankoitx Arteaga	17 Urte	85kg
9. Joxeba Kortajarena	31 Urte	72kg
10. Jorge Segurado	33 Urte	85kg
11. Inaki Kortajarena	31 Urte	77kg
12. Joseba Oiarzabal	31 Urte	79kg
13. Axier Kortajarena	29 Urte	90kg
14. Urtzi Oiarbide	18 Urte	76kg

**Usurbil**

1. Arkaitz Portularume	26 Urte	90Kg
2. Urko Manterola	22 Urte	95Kg
3. Mikel Aranburu	32 Urte	69Kg
4. Mikel Soroa	26 Urte	80Kg
5. Jon Lizaso	25 Urte	80Kg
6. Kepa Unanue	26 Urte	80Kg
7. Xabier Orbegozo	27 Urte	70Kg
8. Inaki Rekondo	38 Urte	90Kg
9. Jaxemari Bengoetxea	48 Urte	75Kg
10. Juanxo Esnal	45 Urte	85Kg
11. Inaxio Muma	30 Urte	65Kg

**Hemani**

1. Gorka Ezeiza	26 Urte	78 Kg
2. Joseba Maizkurrena	38 Urte	80 Kg
3. Nagore Barrenetxea	24 Urte	55 Kg
4. Inaki Mendizabal	26 Urte	80 Kg
5. Amaiz	34 Urte	85 Kg
6. Jexux Ezeiza	28 Urte	84 Kg
7. Larrañaga	35 Urte	80 Kg
8. Aranburu	32 Urte	85 Kg
9. Aitor Barrenetxea	28 Urte	80 Kg
10. Xabier Barrenetxea	29 Urte	70 Kg
11. Unai Errotzene	24 Urte	73 Kg
12. Arkaitz Santa Kruz	24 Urte	82 Kg
13. Inigo Lertxundi	27 Urte	75 Kg
14. Kepa Pikabea	24 Urte	75 Kg

**Astigarraga**

Egunkari hau isteko momentuan Astigarragako taldeko kideak erabaki gabe zeuden.

**GURUTZETA**

SAGARDO NATURALA  
ASTIGARRAGA

**TOLARE**  
SAGARDOTEGIA

**eizmendi**

Osifraga Auza  
Tel. 943 556 405  
Móvil: 616 450 380  
HERNANI


**SAGARDO NATURALA**

# II. EUSKAL HERRIKO SAGARDO MOSTRA

## OTSAILAK 29 · ASTIGARRAGAN

GOIZEKO 10:00 ETATIK AURRERA

- ZAZPI HERRIALDEETAKO 60 SAGARDOGILEREN MOSTRA
- EUSKAL HERRIKO PRODUKTU DESBERDINEN AZOKA
- SAGARDOAREN MUSEO IBILTARIA
- KATA KOMENTATUA (12:00 ETAN) XABIER KAMIO ETA DOMINGO ARINA ENOLOGOEN ESKUTIK
- PATXI PEREZ ETA IPARRALDEKO DANTZARIEN IKUSKIZUNA: DANTZA PIKO (13:30 ETAN)
- BERTSOLARIAK (17:00 ETAN): S. LIZASO, A. EGAÑA, A. MENDILUZE, M. LUJANBIO
- TRIKITILARIAK



# SAGARRONDOTIK

ANTOLATZAILEA:



BABESLEAK:



LAGUNTZAILEAK:



LAGUNAK: SAGARDUN PARTZUERGOA · USURBILGO SAGARDO EGUNAREN LAGUNAK · GIPUZKOAKO SAGARDO NATURALAREN KOFRADIA HERNANIN: TOLARE · HERNANI, ASTIGARRAGA, USURBIL ETA URNIETAKO SAGARDOGILEAK

**BODEGA** TABERNA

HERNANI

HERNANI

**EKO S**

TABERNA

KARDABERAZ KALEA 12



# ASTIGARRAGA

DIONOSTIA

CHARTZIATEGI  
LIZÉAGA

PETRIATEGI BUENAVENTURA

MINA

IRIGOIEN  
BEREZIARTUA

ZARAIN

MENDIOIA

REZOLA

OIARTZUNERA

SAGARRONDOTIK  
KARPA

# HERNANI

ALBERRO

AKAREGI  
ORLEBIZ

ZELAINA

OLUUME  
ZARRI

DIARIBE  
SARASOLA

LARRARTE

ETXEBERRIA

MENDIZABAL

ELUTXETA

SETIEN

ALTUNA

ÉULA

OTSU ENEA  
EIZMENDI

IPARRAQUIRE  
ALIZUETA

ELORRABI

GOIKO  
LASTOLA

GOIZUETARA

LARRÉ GAIN

# URNIETA

DIANME

ORHORA  
URDAIRA

ARRATZAIN

# USURBIL

SAIZAR

IRUIN

ARASTA

AGINAGA

ANALDE BERRI

# SAGARRONDOTIK '04

## KONTZERTUAK

Otsailak 27, Ostirala · 22:30etan

Otsailak 28, Larunbata · 22:00etan

**Fito & Fitipaldis**      **Fermin Muguruza**  
**Su Ta Gar**                      **Kontrabanda**  
**Reincidentes**                      **Ojos de Brujo**  
**Orisha's**                                      **Kuraia**  
**Ari**



## HERNANI

[www.sagarrondotik.com](http://www.sagarrondotik.com)

- 10.000 pertsona biltzeko karpa erraldoia
- Janari-bokata karpa (oilaskoak, patatak...)
- Sagardo kupelak
- Txozna gunea
- Eguna argitzeraino martxa
- Bi egunetarako bonoa: 25€
- Egun bakoitzeko sarrera:
  - Aldez aurretik: 15€
  - Bertan: 18€

### Salmenta lekuak

BAIONA (Mattin), GASTEIZ (Parral), IRUÑEA (Planet Rock),  
 ALTSASU (Lezea), LESAKA (Atxaspi), TAFALLA (Pasadizo),  
 TUTERA (Pekin), BILBO (Jaunak, Muga), BARAKALDO (Mellid),  
 ELORRIXO (Parra), LEKEITIO (Zulo), GERNIKA (Lagun Etxea),  
 DONOSTIA, (Bilintx, Bukowski), URNIETA (Xauxar), ASTIGARRAGA (Kizki),  
 USURBIL (Txiriboga), TOLOSA (Shanti), BERGARA (Pol-Pol),  
 ORERETA (Arkaitza), IRUN (Eskina), EIBAR (Hilbera)

# Sagardoa begietara, sudurrera eta ahora

**XABIER KAMIO** eta Oihana Gainzerain enologoek agertu digute pausoz pauso sagardoa nola dastatu, zertan jarri arreta eta nola gozatu zentzumen guztiak. Kamiok argitu duenez, bi kata mota daude, bata analitiko eta bestea sensoriala edo sentimenezkoa. Eta kata sensorial bat egin aurretik derrigorrez egin behar da kata analitiko, «zer edaten ari zaren jakiteko eta katatzen zauden sagardoak erregulamentazioak zehazten dituen ezaugarri guztiak betetzen dituela ziurtatzeko. Hori oso garrantzitsua da sagardoarentzat eta askotan ez da egiten», azaldu du Kamiok. Bi enologoek pausoz pauso agertu digutena kata sensoriala edo sentimenezkoa izan da eta sagardoa ahalik eta gehien gozatzeko pistak eman dizkigute.

## AURTENGO SAGARDOA

**F**ruitua helduago iritsi da, joan den urteko udako beroak direla medio, eta ondorioz piña, platano eta sagar helduaren usainak antzematen zaizkio, konpota antzeko usainak. Agian alkohol pixka bat gehixeago dauka, baina hori ez da arazoa. Sagarrak ez dira ehuneko ehunean Euskal Herrikoak, kanpotik ere ekarri dira eta horiekin lortzen da oreka. Kolore gehiagoko sagardoa da aurtengoa, berdeska gutxiago azaltzen da eta gorria gehiago. Eta edateko askozaz ere errazagoa da. Oso sagardo ona da aurtengoa.



### HARTZEA

Basoa kanporantz begira jarri behar da, ez kupelari begira, sagardoa kristalaren kontra puska dadin

### BEGIRATZEA

Sagardoak zer nolako burbuilak dituen eta kolorea begiztatu behar dira ondoren

### USAINZEA

Sagardoa fruta usainekoa den, lore usainekoa den edo usain txarrekoa den defini daiteke

### DASTATZEA

Mingainean dastatzeko gune desberdinak daude; puntan zapore gozoak, alboetan garratzak eta atzealdean mingotsak antzematen dira



### Sagardoa hartzea

Sagardoa hartzeko moduak erabat baldintza dezake dastaketa, produktua edaten duenari sortzen dion zirrara guztiz desberdina izan daiteke basoa era batera edo bestera helduta. Basoa behealdetik heldu behar da, baso guztia behatzekin hartu gabe, eta kanporantz okertu behar da, ez kupelari begira, askok egin ohi duen moduan. Basoa era honetara eustearen helburua sagardoa beti kristalaren kontra haustea da. Sagardoak sagardoaren kontra jotzea ez da batere komeni. Izan ere, sagardoa edari karbonikoa izanda, daukan ezaugarri handiena burbuila da eta gero eta txinparta gehiago egin, hobe izango da produktua, enologoek nabarmentzen dutenez. Sagardoa sagardoaren kontra botaz gero, burbuila handia sortzen da eta gehiena joan egiten da berehala. Horregatik da garrantzitsua sagardoa kristalaren kontra haustea, era horretara burbuila basoan barrena zabaltzen da baina beti txikia mantentzen da. Burbuila txikiak denbora gehiago irauten du basoan eta ezaugarri gehiago ematen dio produktuari. Ondo zaindu, beraz, hartzeko modua, karbonikorik gabeko sagardoa hilda baitago.

### Begiratzea

Behin basoan, sagardoa begiekin aztertzea komeni da. Burbuilak handiak edo txikiak diren ikusi, denbora zentean mantentzen diren edo segituan desagertzen diren aztertu, kolorea begiztatu... Burbuilei erreparatu behar zaie lehendabizi. Sagardoak burbuila handiak baldin baditu, fermentazioa tenperatura altuan eman denaren seinalea da eta hori ez da ona sagardoarentzat. Burbuila txikia baldin bada, fermentazioa tenperatura baxuan egin dela esan nahi du, modu naturalean, eta, hala eginda, sagardoak aroma gehiago izaten ditu eta kalitate hobegokoa izaten da. Ondoren koloreari begiratu behar zaio. Katari dagokionez, ezaugarri tekniko bezala, ez dago kolorearen parametrorik finkatuta. Erabili diren sagar moten arabera da sagardoaren kolorea eta denetariko gustuak daude, bai sagardogileen artean eta baita sagardozaleen artean ere. Sagardogile bakoitzak bere sagardoari bere kolore mota ematen dio; kolorea sagardotegiko nortasuna dela esan daiteke beraz. Eta gustuko kolorea lortzeko sagar mota desberdinekin jolasean eta frogak egiten aritzen da sagardogilea muztioarekin.

### Usaintzea

Hasieran, behinik behin, basoa geldirik dagoela usaindu behar da sagardoa, produktua geldirik dagoela. Usaina duela antzemanaz gero, mugitzera koan aroma askoko sagardoa izango da. Gero eta usain handiagoa izan, produktua hobe izango da. Basoa mugitu gabe sagardoak zein usain duen ezin bada definitu, basoa pixka bat mugitzea komeni da. Basoa mugitzera koan sagardoak eta kristalak elkar jotzen dute eta marruskaduraren ondorioz, tenperatura igo egiten da eta produktua aroma guztia ateratzen da kanpora; dela sagar usaina, piña usaina, platanoarena... Zaila da aromaren parametroak definitzea. Fruta guztiek aroma horiek osatzen dituzten osagai kimikoak dauzkate eta osagai horiek beti dira berdinak, aldatzen dena osagai horien kopurua da eta horren arabera bereizten dira aroma desberdinak. Bakoitzak modu batera edo bestera interpreta lezake aroma hori. Definitu daitekeen gauza bakarra fruta usaina duen, lore usainekoa den edo usain txarrekoa den da. Hortik aurrera, batzuk platano usaina hartuko diote, besteek piñarena, sagarrarena besteek.


### Dastatzea

Sagardoaren zaporea dastatzen da azkenean. Garrantzitsua da mingainean dastatzeko gune desberdinak daudela jakitea; mingain puntan zapore gozoak antzematen dira, mingainaren alboetan zapore garratzak eta atzealdean zapore mingotsagoak igertzen dira. Hortaz, sagardo tragoa hartuta mingainaren zein partetan sortzen duen sentsazio gehien aztertu behar da, gozotik, garratzetik edo mingotsetik gehiago duen jakiteko. Zaporearen parametroak definitzea ez da erraza, hor ere kolore guztietako gustuak daudelako. Baina, enologoek nabarmentzen dutenez, sagardo onena hiru zaporeen oreka ona zaintzen duena da, gozoa, garratza eta mingotsa tamaina beretsutan duena. Txotx sasoiaren hasieran gozotik gehiago izan ohi du sagardoak eta, hilabeteak aurrera joan hala, zapore garratzak eta mingotsak areagotu egiten zaizkio. Baina, finean, zer da sagardo on bat? Ez da erantzuten erraza, hori norberaren interpretazioaren arabera ere bada. Baina sagardo onenaren ezaugarri nagusia hau da: tragoa hartu eta gorputzak beste trago bat eskatzea. Aurtengoak betetzen du tasun hori.

# Otsailaren 27, mundua eta Euskal Herria dantzan

## REINCIDENTES Sevillatik honuntza begira

80ko hamarkada erdialdean Sevillan sortutako talde honek Euskal Herriarekin harreman handia dauka, itzela. Beste talde askok bezala, sortu zirenean Euskal Herriari errepikatzen zioten eta hemen, gure artean, aurkitu zuten behar zuten babesa eta errekonozimendua. Hasiere-hasieratik euren abestietako hitzak iraultzaileak eta apurtzaileak ziren. Punka eta rock urbanoa zuten oinarri eta, poliki-poliki, Euskal Herriko diskoetxeen laguntzarekin, euren mezua eta musika Andaluzian eta Estatu espainolean barrena ezagutzera ematen hasi ziren. 90eko hamarkadan Expo92aren eta Ameriketako ustezko aurkikuntzaren mendeurrena gogor salatu zuten, eta talde askorendako erreferente bihurtu ziren. Gaur egunera arte, disko mordoa kaleratu dituzte, eta ez Estatuan bakarrik, Hego Amerikan ere izen handia hartu dute. Diskoetxe independenteekin lan egin dute, baita multinazionalekin ere bai, eta diskoak euren kabuz ere atera dituzte. Merkatuaren trikimailu guztiak ezagutzen dituzte, baina zelanbait euren hasierako jarrera eta ideiei gogor eutsi diete. Estatuan rock komertzialek kanpo, disko gehien saltzen duen taldeetako bat da. Iraultzaileak dira, kritikoak oso, eta jendeari, gazteei batez ere, pentsarazi egin nahi diete. Eta hori bai, Andaluziako langileen ispirituia beti presente izan dute.




## ORISHA'S Kubatik zuzenean Hernanira

Kuba ere presente egongo da sagardoaren lurraldeko jaialdi eraldoi. Azken urteotan, Orisha's taldeak ospe handia hartu du nazioartean. Hori baino lehenago, 90eko hamarkada bukaeran, Estatu frantsesean kokatutako Sargento Garcia taldeko DJ Livanek, Kubako nostalgiaz, talde bat sortzea erabaki zuen. Horretarako, hiru lagunengana jo zuen: batetik, son kubatarren gitara-jole Roldanengana; eta bestetik, irlako lehen hip-hop taldea izan zen Amenazako Ruzzo eta Yotuelengana. Hiruek baiezkoa eman zioten, eta taldeari Orisha's izena jami zioten. Orisha's erlijio afrokubatarreko jainkoak dira eta, euren esanetan, deitura horrek nonahi kubatar bezala definituko ditu. 1999an, 'A lo cubano' diskoa kaleratu zuten, eta lan horretan Kubako doinu tradizionalak eta hip-hopa uztartu zituzten. Gaur egungo musika egiten dute, zuzena, baina, euren irlak berezkoa duen berotasuna ere agerian eramaten dute. Izugarizko arrakasta lortu zuten, eta munduan zehar hainbat bira egin dituzte. 2002an, 'Emigrante' lana kaleratu zuten ildo antzekoan, baina hitz sozialagoekin. Are gehiago, diskoa etorkinei zuzenduta dago. Bestalde, euren kantuak Kubaren gaineko oroitzapen eta nostalgiaz josiak daude. Kolorez, indarrez eta eritmoz jositako ikuskizunak eskaintzen dituzte, eta jakina, Kuba bihotzean daramate!

### TABERNA

# Zintzarri

EZKIAGA PASEALEKUA, 7  
HERNANI



ELOTXETA



Sagardotegia Errelogia



## SU TA GAR

### Heavy klasikoa, betikoa eta maitea

Eibartar horiek ez dira errez kikiltzen. Punkaren sasoian, heavy musika ia ezkutuan edo aurreinzi mordo batekin entzuten zen garaian, ausardi osoz, aurrera salto egin eta doinu horiek Euskal Heriratu zituzten, axolagabeki. Euskaraz abesteaz gain, hitzen haria kalera, hau da, euskal gizateriaren arazoak erakustera baliatu zituzten, eta hori izugamizko aldaketa izan zen. Hasieran, kostata, baina bide luzea egin zuten eta ohorezko (eta merezitako) lekua hartu zuten musika eszenan. Poliki-poliki heavytik umundu gabe, euren soinua sendotuz eta gogortuz joan dira eta metala ere hurbildu digute. Zuzenean jotzen eta lanak grabatzen gelditu bank, taldeak gogor dirau, zuhaitz enborek duten sendotasunaz eta indar berberaz. Disko mordoak kaleratu dituzte, txukunak guztiak, eta zailtasunak zailtasun aurrera egin dute beti, ia taldekideak aldatu bank, familia handi bat bailitza. Euren azkenengo lana den 'Itsasoz beteniko mugetan' ere ez dute atzerapausurik egin, ez musikan ezta hitzetan ere ez, eta eurak zuzenean ikustera joaten garenean jakin badakigu zer eskainiko diguten; ez dute inoiz hutsik egiten.



## FITO & FITIPALDIS

### Rock&rolla eta soula, bluesa, flamenkoa...

Alfonso Cabrales Fitoi urte askoan Bilboko Platero y Tu taldeko abeslaria izan da. Talde hori sortzerakoan, Leñoren irakaspenak oso presente izan zituzten, eta betiko rock&rolla egiten hasi ziren, jarrera oso umilarekin. Harrera oso ona izan zuten eta euren ospea handitzen joan zen. Hainbat disko kaleratu zituzten. Kontzertuak ematen eta diskoak grabatzen eritmo bizian ibiltzen den talde orok bezala, noizbehinka geldidunak egiten zituzten. Halako batean, 1998an, Fitok bere kabuz gitarra akustiko batekin konposatzen eta ia bakardadean jotzen zituen baru-baruko kantu lasaiago batzuk grabatzea erabaki zuen. Gertuko musikari batzuen laguntzarekin, 'A puerta cerrada' kaleratu zuen. Disko horiek Fitok espero ez zuen harrera ona izan zuen, eta zuzenean kantu horiek defenditu ditu beste musikari batzuekin. Horren ostean, 'Los sueños locos' eta 'Lo mas lejos a tu lado' etori dira, horiek ere arakastatsuak. Istorio xumeak kontatzen ditu, berari edo ingurukoei gertatutakoak. Harremani buruzkoak dira batzuk, baina kritikak ere badu bere lekua. Musikari oso txukunak inguratu da, eta perkusio eta baxu oinarririk oso onak, gitarra akustiko melodikoak, koru asko eta kantuei izaera berezia ematen duen ahots melankolikoa uztartzen ditu. Emaitza zein den? Bluesa, rocka, flamenko pixka bat, soul eta swing apur bat, eta rock&rolla.


**TXILI TABERNA**  
Zapa kalea 2 HERNANI  
943 55 10 06

**URUMEA**

Taberna



Kardaberaz kalea 37 HERNANI



## FERMIN MUGURUZA KONTRABANDA


Galdu ezineko aukera historikoa

Fermin Muguruza irundarra aski ezaguna da gure artean. 80ko hamarkada hasieratik 'gera' ematen dabil. Punk eta ska doinuekin hasieran; rap, hardcore, reggae eta oro har crossover-arekin gerora; eta musika beltz eta dantzagamiagoarekin aspaldian. Ez da geldi egotekoa gizona, eta badaki gauzak ondo antolatzen. Uneoro proiektu beriekin datorkigu, eta iazko Jai Alai Katumbi Express bira -Manu Chaorekin batera- bukatu ondoren, Komunikazioa Tour biran buru-belarri dabil. Bizi dugun salbuespen egoera nazkagariak oztupo ugari ipini dizkio, eta hala nola zenbait kontzertu bertan behera utzi dizkiote, mehatxupear. Zer esanik ez, Hemanin goiari eutsiko diola eta ziur indarberituta eta gogo handiagorekin etorriko dela. Kontrabanda proiektuan azken 20 urteotan egindako ibilbidea errebasatuko du: Kontatutik gaur egunera arte, Negu Goniak ahaztu barik, jakina. Horretarako, luxuzko dozena bat musikari alboan izango ditu, eta horiei esker, musikaren mundu mapatik barrera bidai berezia egingo dugu. Ferminen egingo duen azkenengo bira dela diozku, eta ziur halako gogoz eta esfortuz prestatutako ikuskizunak ez gaituela hotz utziko! Hemaniko hitzordua huts ezin eginekoea da, beraz, Ferminen azken kontzertua ez bada, azkenetarikoa izango baita. Ez galdu aukera historiko hau!

## KURAI

### Kimika oholtza gainean

2001ean, Hondarribiko Dut taldea atsedendian zegoenean, Joseba baxulariak hainbat abesti idatzi zituen bere kabuz. Beriki desagertutako El Corazón del Sapo hardcore talde zaragozarreko Fernando abeslariarekin hitz egin, eta abesti horiei forma ematea erabaki zuten. Grabazio duin bat egiteko asmoarekin, Dut-eko bateria-jole Galdem eta Mikel Anestesiari gonbidapena egin zieten. Poliki-poliki, bola handitzen hasi zen. Grabazio estudioa sartu eta handik 'bispak' irten ziren. Ah ze musikariak eta ze kantua! Punk-rocka, rock gogorra, melodia eta hardcorea koktelera baten, eta euskaraz gainera! Metak diskoetxeak kaleratu zuen diskoak izugarizko erantzun ona izan zuen, eta euren kontzertuetan ez erretzea oso zaila da. Euren arteko kimikak ezin hobeto funtzionatu zuen, eta beste disko bat grabatzeko geldiunea egin zuten. Oraingoan abestiak denon artean egin dituzte, eta indarra soberan dago. 'Iluntasunari barre' egiten diote, eta beste behin eszenatokietan 70eko eta 80ko hamarkadetako bat-batekotasuna gaurkotuta aurpegira botako digute. Etenaldia luze egin zaigu eta Sagarrondotik jaialdi honetan izango dugu taldea berriro ikusteko aukera, kuraia badugu behintzat!



*Zuzendaritza berria Aitor Aizpuru sukaldariak gidatua  
eta Xabier Tellok lagundua*

# Z A L D U A

## Jatetxea - Restaurante

*Zatoz eta goza ezazu!*

Pº Hipódromo, 8 ZUBIETA (Gipuzkoa) • Tlf: 680 424 171/943 37 18 35

# Otsailaren 28, derrigorrezko hitzordua



## ARI ARIANNA PUELLO Karibeko usaina duen protesta

Hip-hop mugimendua geroago eta indar handiagoa dauka munduan, eta baita Estatu espainolean ere. Euskal Herrian oraindik talde gutxitxo daude. Askotan esan ohi da mugimendu hori oso maskulinoa dela, eta are gehiago matxista ere badela. Ez dugu hori ziurtatuko, baina egia da poliki-poliki La Mala Rodriguez eta Ari moduko neska kementsuak esparru horetan dagokien lekua hartzen ari direla, eta ez edonola, gainera. Arianna Puello jatorriz Errepublikan dominikarra da, baina Gironan bizi da. Gazte-gaztetxotatik hip-hop zalea izan da, eta 90eko hamarkada hasieran musikagintzan lehen pausuak ematen hasi zen. Discipulos del Micro taldekoek haren ahalmena ikusi eta bere gain hartu zuten. Beranduago, El Club de los Poetas Violentos taldeko Meswyrekin kanta batzuk grabatu, eta berehala ezagutzera eman zen Ari. Orduetik hainbat lan grabatu ditu eta guztiek oso harrera ona izan dute. Are gehiago, bere musikaren bitartez nazioarteko birak egin ditu. Espainiako Estatu hip-hop talde askok Arii kolaborazioak eskatu ohi dizkiote, eta uzten dioten tartean, iaz, 'Así lo siento' diskoa kaleratu zuen. Lan hori aurkeztuko du Hemanin. Bere jatorri karibetarra oso presente dauka, eta abestietan gai sozialak jorratzen ditu: langabezia, inmigrazioa, hezkuntza, sexismoa...

## OJOS DE BRUJO Baietz zeu ere sorgindu!

Izen sorgindua daukan familia handi hori Bartzelonan kokatuta dago. 2000 ure inguruan sortu zuten, talentuz jositako hainbat ipurterrek bat egin zutenean. Taldearen bultzatzaile nagusiak oso txikitatik runbak eta buleriak ezagutu dituzte. Beste batzuk, beiz, jaza, funkya edota antzerkia dituzte ezagupen nagusienak. Oinamizko flamenkoari muzin egin gabe, baina gaur egungo musika estilo berritzaileagoekin aberastuz, nabarduraz betetako musika egiten dute; euren 'flamenko jip-jop' deitzen diote. Ohiko instrumentuez gain -kitara flamenkoak, kajoia, kongak, baxua, bateria-, scratch-ak, programazio elektronikoak eta beste batzuk erabiltzen dituzte. Marina 'La Canillas' ahots nagusiak idatzitako hitzek ere badute zeresanik. Poesia hutsa dira eta kalamua protagonista nagusienetakoa bada ere, espekulazioa vs. okupazioa, kaleko umei, bidegabekeriari eta hipokresiarri abesten diote, eta bizitzan artea barabara eman duten ijiitoak omentzen dituzte. 2001ean kaleratutako 'Vengue' lanak arakasta itzela izan zuen, eta hari esker Europan hainbat bira egin zituzten. 2002an, 'Bari' lana argitaratu zuten, bere baitan flamenkoa, rocka, hip-hopa eta beste doinu batzuk uztartuz. Euren zuzenekoak itzelak dira. Dena ematen dute, eta bederatzi bat lagun dira. Baietz zeu ere sorgindu!



# KIXKAL

tavern

Nagusia, 15  
**HERNANI**






# Hernaniko Udala

"Edari bakana, milurtekoa, erroetaraino benetakoa...  
Egiazko artelana: horixe da sagardoa, gure-gurea dena".

Antxon Agirre Sorondo



**Urnietako  
Udala**

Eta... Urnietan  
sagardoa  
jaio zen




USURBIL

**USURBILGO UDALA**

**USURBIL, SAGARDOAREN LURRALDEA**

# «Arrakasta lasaiago gozaten da 37 urterekin»

## Fito Cabrales Fito&Fitipaldis taldeko abeslaria



Fitok sekula bira batekin ez duela hainbeste gozatu sentitzen du.

*Ez omen du inoiz gertatu ez zaion ezerren inguruan kantatzen. Ondo asmatzen du bere azalean bizitako istorio xumeak kantatzen eta kontatzen.*

**FITOK BEREZKOA** duen xarnari esker, alboan dituen musiko bikainen esker eta Fitipaldien artean dagoen giro onari esker, Fito&Fitipaldis taldearen hirugarren lanak izugarritzko arrakasta lortu du. Horren adibide garbia da aste honetan bertan Bartzelonako Musika Kataluniarraren Palaeuan kontzertu bat errepikatu behar izan dutela, orain ez asko izandako kontzertuan sartzerak agortu eta zale asko eta asko ezin sartu gertatu zirelako.

**“Lo más lejos a tu lado” da zure hirugarren lana. “Bi ezker, hirugarrena seguru”.**

Hori esaten dute, baina segurua izango den horren bila ez bazabiltza ez da sekula etortzen, ez lehenengoan, ez bigarrenean ezta hirugarrenean ere. Hala ere, ez dut inor engainatu nahi, egia da gauzak oso ondo doazela eta oso pozik gaudela horregatik. Disko bat ondo saltzeak gauza asko errezten ditu. Bira bat egitea eta han edo hemen jotzeko baimena eskatzen ibili beharrez handik edo hemendik deitu eta ea joko duzun galdetu eta baimena haiek eskatzea... horrek guztiak asko aldatzen ditu gauzak. Agian hau dena 18 urte nituenean gertatuz gero, rock&rolla filmetan agertzen den bezalakoa dela pentsatuko nukeen. Baina 37 urterekin harrapatu nau eta ederki dakit ez dela filmetan bezala.

Arrakasta lasaitasun handiagoarekin gozaten da 37 urterekin.

**Oso momentu polita bizi duzu musikaren munduan.**

Egia da ez gairela sekulako izarrak, baina rock&rollaren munduan talde batek 90.000 disko saltzea gaur egun arrakastatzen hartzen da. Politena nonbaitera jotzera joan eta iaz 800 lagun zeuden tokian 2.000 lagun topatzea da. Hori izugarria da.

**Arrakastak zure bizitza aldatu al du?**

Arrakasta oso hitz potoloa da. Nire bizitza alor askotan aldatu da, baina ez da aldatu arrakastagatik. Bizitza askoz gehiago aldatu ohi dute musikaz aparte dauden hamaika gorabeherek. Adibidez, askoz gehiago alda dezake bizitza etxea aldatzeak.

**Baina zuk ez duzu tarte handirik pasatuko etxean.**

Egia esan galtzontzilloak aldatzera baino ez gara etortzen etxera. Baina oso ondo datorkit, uste dut oraintxe etxean ez egoteko gogoia daukadala, furgonetarekin hara eta hona ibili nahi dut, une honekin ahalik eta gehien gozatu nahi dut. Normalki, entseatzeko, proiektu berriekin pentsatzen eta biran ibiltzen zara, dena batera. Ez dakit ahal izango dudana, baina

oraingoan bira ez den beste ezertan ez pentsatzen saiatzen ari naiz. Horregatik da errazagoa biraz gozatzea; furgonetara igo eta mundua gelditu egiten da, ez dago egunkaririk, ez albistegirik, ez dago ezer. Egia esan, gehien gozaten ari naizen bira da oraingo hau.

**Zuzenekoarekin asko gozatu ohi duzue musikariek. Zein garrantzi daukate horren aurrekoak eta ondorengoak?**

Kontzertuak bi ordu irauten du baina bira Arrigoriagan hasten da, bidesarian bertan. Bi orduetan bakarrik gozatzeko Cadizeraino joan behar izango banu, etxean geratuko nintzateke.

**Zuenean giroa bikaina da beraz. Nortzuk dira Fitipaldiak?**

Aldaketa bakarra egon da. Chema ‘Animal’ Perezekin, Los Enemigos taldeko bateria-jolearekin, hasi nuen bira, baina orain Fernando Irazokik jotzen du bateria, Euskal Herrian oso ezaguna dena eta musikari familia famatu batetik datorrena. Oso gustura nago berarekin, bai musika arloan eta bai lagun bezala. Batizek jarraitzen du kitarra jotzen eta saxoan Javier Alzola dago, lehen diskoan hasi zen nirekin. Eta baxua Roberto Caballerok jotzen du; aurreko bira ere taldearekin egin zuen Robertok.

**Areto txikiak edo Sagarrondotik bezalako jaialdi erraldoiak?**

Jaialdi erraldioen eta areto txikien artean bat aukeratu behar izango banu, biak txandakatzeko aukerarik gabe, aretoen alde egingo nuke, hurbilagoak direlako. Jaialdi handietan ezin dut oholta gainean egoera guztiz kontrolatu. Areto txikitik egoera gehixeago kontrolatu dezakedala uste dut, zerbait esan dezaket eta aretoan dauden guztiak entzun ahal dute. Jendearen keinuak ere ikus ditzaket. Baina 80 areto egin eta gero, gogo bizia izan ohi dudala jaialdi handi batean sartzeko.

**Blues, Soul eta musika latinoaren arrastoak nabari dira zure lanean. Betidanik barruan izan duzun zerbait al da?**

Erosi nuen lehenengo diskoa BB Kingen bat izan zen, 12 edo 13 urte nituenean. Beti izan ditut gustukoak beste-lako estiloak. Batzuetan, musika taldeak sailkatu egiten dira konturatu gabe eta banda baten izenak edo bere inguruan sortu den pertsonaiak jan egiten zaitu. Hartara, zu zeu zara lehenengo traba eta eragozpena. Inork ez dizu

ezer galeratzen, baina zu zeu, inkonstanteki, ez zara ausartzen gogoak ematen dizun guztia egiten. Agian adinean aurrera joan ahala, halako errespetuak eta galdu egiten dituzu eta betidanik gustatu izan zaizun hori egiten ausartzen zara, aurretik ez baitzenuen uste gustuko zenuen hori zure diskorako egokia zenik. Hala ere, sekula ez nuke blues disko bat egingo, ez dakidalako bluesa egiten. Baina ausartzen naiz beste estiloetako zertzeladak ematen nire lanari, dagoeneko ez daukat zer esango dutenaren beldur hori. Hori pasatu zitzaidan.

**Baina, oinarrian beti rock&rolla dago.**

Ez dakit beste ezer egiten. Eta zaila ere bada, rock&rolla adierazpen oso zabala delako. Bakoitzak rock&rollaren ikusmolde propioa dauka, ondokoaren desberdina askotan. Baina oso garbi daukat kultura musikalik baldin badaukat, kultura hori rock&rollaren barruan dagoela, beti entzun dudana eta jo dudana hori izan delako.

**Plateroren jarraitzaileak eta Fitipaldienak berdinak al dira?**

Aldatu direla uste dut, rock&rollak beritzea behar duelako. Fitipaldien kontzertuetara joaten den jendea gazteagoa da. Baina zerbait harro sentiarazten banau, hori entzulegoa da. Jotzen ari garenean entzulegori begiratu eta pentsatzen dut ‘zer zerikusidauka hango kuadrila hark hemen lehen iladan dagoenarekin?’. Orduan, harrotasun atake bat izaten dut eta gure abestiengatik izango ez balitz, bi kuadrila horiek sekula ez lirtekela elkarren ondoan egongo pentsatzen dut.

**Zure abestietan kontatzen dituzun istorioak zuri edo zure ingurukoei gertatutakoak al dira?**

Ez daukat irudimen handirik, sekula ez dut pasatu ez zaidan ezer kantatzen. Kitarra jotzea zerbait fisikoa da, dibertigarria, hunkigarria... baina abestea hori guztia baino gehiago dela uste dut. Milaka lagunuen aurrean hizketan aritzea da kantatzea. Gero eta lotsa handiagoz idazten ditut abestieta-ko hitzak, ‘hau norbaiti interesatzen al zaio?’, pentsatzen dut, beti nitaz hitz egiten baitut. Abesti bat egiteko gogoia dudala sentitu behar dut, nik ez dut inoiz aukeratu. Ez dakit nire hurrengo lana triste edo alaia izango den, gertatzen zaidanaren arabera izango da.

### UNE POLITA

«Politena nonbaitera jotzera joan eta iaz 800 lagun zeuden tokian aurreko 2.000 topatzea da»

### BIRA

«Furgonetara igo eta mundua gelditu egiten da, ez dago egunkaririk, ezta albistegirik ere»

### ROCK&ROLLA


«Ez dakit beste ezer egiten, beti entzun dudana eta jo izan dudana hori delako»

### ZERTZELADAK

«Ausartzen naiz beste estiloetako zertzeladak ematen nire lanari, orain ez daukat zer esango dutenaren beldurra»

### GIROA

«Kontzertuak bi ordu irauten du, baina bi orduetan bakarrik gozatzeko Cadizeraino joan behar izango banu etxean geratuko nintzateke»



# SAGARRONDOTIK 2004 • OTSAILAK 26,27,28 ETA 29

Argitaratzen du: Sagardoaren Kultura Sustatzeko Elkarte • Egoitza: Gudarien plaza 8-Behea 20120 Hernani • e-posta: sagarrondotik@sagarrondotik.com • NIF: G 20800306 • Diseinua eta maketazioa: Inhar Olano eta KOM diseinu eta komunikazioa • Testuak: Amagoia Mujika eta Iker Barandiaran • Marrazkiak: Jokin Larrea • Mapa: Jon Urbe

# KONTZERTU GUNEA

**OSTIRALA 27**  
Reincidentes  
Su Ta Gar  
Orisha's  
Fito&Fitipaldis



**LARUNBATA 28**  
FerminMuguruza  
&Kontrabanda  
Ari  
Ojos de Brujo  
Kuraia

## NOLA IRITSI



## KARPA ERRALDOIA

10.000 lagunentzako lekua

## JANARI KARPA

oilaskoak, bokatak, patatak  
sagardo kupelak eta mahaiak

## KARPA TXIKIA

DJak eguna argitu arte



# LIZEAGA

Astigarraga

Eska ezazu Sagardoa  
eta etiketan LIZEAGA  
jarriko balu askoz hobe.

# EDAN ETA EMAN EDATERA